



24/25

AIdaketa eta berritasunez beteriko urtea! Aurreko denboraldian , Joxe Pikabeak eta Endika Marrahi futbol eta saskibaloiko kordinazioak utzi zituzte. Horrek berrantolatzea eta erronka berriei ilusioz eta gogoz aurre egitera eraman gintuen. Denboraldia amaitu da eta hausnarketarako momentua da; atal bakoitzak egindako lana aztertu, hausnartu eta amankomunean jarri behar ditu guztiak, ondo egindakoak mantendu eta erabaki oke-rrak baztertu beharko ditugu gure kirol es-kaintza hobetuko badugu. Ziur gaude aldaketa horiek indartu egingo gaituztela eta denontzat aukera berriak irekiko dizkigutela.

Azkenean, denbora luzez zain egon on-doren, Atsobakarreko instalazio berrietan en-trenatzen ari gara. Pazientziak eta esfortzuak fruituak eman dituzte, eta orain kirolaz bal-dintza onenetan entrenatzeko eta gozatzeko garaia da.

Aurten ipar martxa atalaren 10. urteu-rrena ospatu dugu. Egun bikaina izan zen, energiaz eta giro onez betea, goizetik gaue-ra arte “auzolanean” prestatutako programa-zioarekin.

Bestalde, mendiko sekzioa jo ta fue-go ari da Michelingo rokodromoa handitzeko, baita eraikitzen ari diren kiroldegian roko-dromo berria jar dezaten. Instalazio hauek funtsezkoak dira escalada baldintza onenetan praktikatzeko eta gure herrian escalada sus-tatzeko. Espero dugu laster egi bihurtzea! Jakin dezazuen, mendi sailak bide berri bat ireki du Santa Barbaran, “Elgeta 1924” ize-nekoa, mendi federazioaren mendeurrenaren omenez. Harro egoteko modukoa da gure kirolean arrastoa uzten jarraitzea, historia errespetatuz eta etorkizunari gogo biziz eta erronka berriak escalatzen jarraitzeko.

Laburbilduz, aldaketaz, lorpenez eta talde-lan handiz betetako urtea izan da. Klube-tik eskerrak eman nahi dizkizuegu aurrera jarraitzeko aukera ematen diguzuen guztioi. Goza dezagun udaraz, hurrengo denboraldiari gogoz ekiteko!

IUn año lleno de cambios y novedades! La temporada pasada, Joxe Pikabea y Endika Marrahi dejaron la coordinación de fútbol y baloncesto. Eso nos llevó a reorganizarnos y a afrontar los nuevos retos con ilusión y ganas. La temporada ha terminado y es el momento para la reflexión; cada sección debe analizar, reflexionar y poner en común el trabajo realizando, mantener lo bien hecho y rechazar decisiones erróneas si queremos mejorar nuestra oferta deportiva. Estamos convencidos de que estos cambios nos fortalecerán y nos abrirán nuevas oportunidades para tod@s.

Por fin, después de mucho tiempo de espera, estamos entrenando en las nuevas instalaciones de Atsobakar. La paciencia y el esfuerzo han dado sus frutos y ahora es el momento de entrenar y disfrutar del deporte en las mejores condiciones.

Este año hemos celebrado el 10º aniversario de la sección de marcha nórdica. Fue una jornada estupenda, llena de energía y buen ambiente, con la programación preparada en “Auzolan”.

Por otro lado, la sección de montaña sigue con pleno ahínco para ampliar el rocódromo de Michelín, así como para que se instale un nuevo rocódromo en el polideportivo en construcción. Estas instalaciones son fundamentales para practicar la escalada en las mejores condiciones y para promocionarla en nuestra localidad. ¡Esperamos que pronto se haga realidad!

Para que lo sepáis, la sección de montaña ha abierto una nueva vía en Santa Bárbara, “Elgeta 1924”, en homenaje al centenario de la federación de montaña. Es un orgullo seguir dejando huella en nuestro deporte y seguir escalando nuevos retos.

En resumen, un año lleno de cambios, logros y mucho trabajo en equipo. Desde el club queremos agradecer a todos los que nos permitís seguir adelante. ¡Disfrutemos del verano para empezar con ganas la próxima temporada!

AIORA BELARTIETA GALARDI “Kirolari Onena”

Ostadarreko kideontzat aurten- go Lasarte-Oriako kirolari one- na oso berezia da. Izan ere, lasarteoriatarra izateaz gain, Ostadar kumea dela esan dezakegu: bere aita Ostadarreko lehendakari-ohia eta en- trenatzailea, Aiora eta bere ahizpek txikitik Ostadarreko kirolariak...Ostadar xurgatu dute txikitik. Saskibaloia utzi eta arraunean hastea erabaki zuen. Urte oso onak eman ditu Aiorak, bai- na azken denboraldia izugarria izan da kirol emaitzei dagokionez, historia egin du Arrauneko traineruarekin, denboral- di batean irabazi daitezkeen bandera guztiak eskuratu ditu. Aiora Belartieta Galardi da bere izena, amaren abize- na ere aipatzekoa da, etxeko lau kide klub berean edukitzearen albo-kalteak jasan behar izan ditu eta.

Aiorak lehen estropada Castroko kostan izan zuen eta ez zen debut xamurra izan, arazo teknikoengatik ordubetez itxaron behar izan zuten eta tentsio betez. Lugañeneko tra- nerua loratzen ari zen bitartean lasarteoriata- rra popan aritzen zen eta urte gutxi behar izan zituen Aiorak lehenengo Kontxako bandera as- tintzeko. Gainera, 71 urteren ondoren Donostiako talde batek berriz bandera eskuratzea lortu zuten. Maskarilak tartean eta hilabete gogorrak atzean astindu zuten lehen Kontxako bandera Donostiako portuan txaloen oihartzu-



nik entzun gabe.

Kontxako lehen bandera lortu ostean garaipenak gertuago ikusten hasi eta 2023. urtean Aiora bera proel lanetan ziabogatik zia- bogara arraunean zabilela, Ligako irabazoleak izan ziren eta urtea borobildu nahiean orain- goan bai Kontxako estropadako afizio, txalo, oihuen artean Kontxako bandera berriro ere eskuartean izatea lortu zuten.

Arraun Lagunakentzat urte historikoa izanik, garaipenen olatuari jarraipena eman nahi izan dioten 2024. urtean ere eta lan gogo- rrak bere fruitua eman du. Liga hasi aurretik txapelketa guztiak irabazi dituzte, Gipuzkoa, Euskadi eta Spainikoa. Jarraian, orain arte arraunean ikusi ez diren Ligako 14 banderak lortu dituzte Liga irabaztearekin batera. Errekorrez beteriko urtea amaitzeko, burua hotz mantenduz, Kontxako banderaren azken ga- raipena ere lortu dute. Aioraren hitzek elka- rrizketetan zioten bezala, “Ametsetako” den- boraldia izan da.

Aiora, zorionak eta amesten jarrai de- zazun, gu ere zurekin batera amesten jarria- tuko dugu, uzten bagaitzu.



FELIX TELLERIA “Auzolan saria”

Como todos los años, Ostadar SKT quiere agradecer la labor ciudadana entregando el premio Auzolan. En esta ocasión ha sido elegido Felix Tellería, vecino muy vinculado con la cultura en Lasarte-Oria, en la faceta de la dantza y tamborrada, principalmente.

La dantza es una de sus pasiones. Fue uno de los fundadores del grupo Erketz EDT, que allá por 1968 comenzó su andadura desde la sede de la sociedad de montaña Santa Barbara. Este grupo pronto empezó a brillar, como lo demuestra el primer premio de la Txapela de Oro de grupos folklóricos logrado en el cine Leidor de Tolosa. En 1972, se desligó de Erketz para fundar un nuevo grupo de dantza, Ibargi, al cual dirigió durante más de una déca-



da. Su labor didáctica fue notoria e independiente de enseñar a bailar en la ikastola Landaberri, también lo hizo en Ibaeta, Irun, Paxus Enea (Zizurkil), Deba, entre otras localidades. Con motivo del X aniversario del Ibargi, bailaron junto a componentes de la Sorgin Dantza de Oria (1948). Este contacto le animó para seguir promocionando este grupo de Oria y lo dirigió en Euskal Inauteriak desde 1982. Desde entonces enseñó a padres, madres, jóvenes, niños y niñas para dichas fiestas hasta que pasó el testigo hace unos años a Ttakun K.E. También se encargó de la Sorgin Dantza para las vísperas de San Pedro, desde 1995 hasta el 2019.

Otra de sus actividades preferidas es la tamborrada de Lasarte-Oria, a la cual ha dirigido desde 1976 (junto Javier Mitxelena, ya fallecido) hasta el 2022, que pasó su relevo a Mitxelena hijo (Xabier).

Felix, zorionak eta mila esker herriarenagatik egindako, egiten ari zaren eta egingo duzun lanarengatik.

KROSA

Azken bi edizioetan azken orduko aldaketak izan ditugu: batean, Allerruko zubian egin behar ziren zaharberritze lanak tarteko, azken unean ibilbidea aldatu behar izan genuen. Lasterketa ondoren egindako balorazioan ohiko ibilbidearekin jarraitzea lehenetsi genuen, eta, horrela egin dugu. Bestetik, azken edizioan ez da Roller lasterketarik izan. Lasterketa egutegian aldaketak izan dira eta egun berean beste lasterketa luzeago bat jarri dute, Rollerren beharretara hobe egotzen dena. Gipuzkoako Irristaketa Federaziotik deia jaso genuen, roller batzuk ere jarri ziren gurekin harremanetan, eta lasterketa ez antolatzea gomendatu ziguten, gehienak beste lasterketara joango zirela aurreikusten baitzuten. Erabakia hartza kosta zitzagun, baina, azkenean, bertan behera utzi genuen. Baino datorren edizioan, urriaren 26an, rollerak gure artean ikusi nahiko genituzke.

Lasarte-Oria Bai! lasterketak bere gi-



zarte izaera sendotzen jarraituko du eta *Fibromialgia abordatzen!* ekimenarekin bat egin genuen. Beñat Garcia herritarra fibromialgia gaixotasunari ikusgarritasuna emateko lanean ari da kirol erronka ezberdinak gauzatzu, eta, iaz gurean aritu zen korrika. Horrez gain, ekimenaren berri emateko informazio-orriak banatuko genituen eta ekimenaren merchandisingarekin postu bat jarriko zuten Okendo plazan.

Azken 1 dortsala Ormazabal lore-dendak jaso zuen. Zein ote izango da hurrengoa?

EUSKARALDIA





Atsobakar, una realidad

Después de 25 años entrenando en condiciones precarias, la inauguración de la nueva pista en Atsobakar marca un punto de inflexión para la comunidad atlética local, que celebra un crecimiento y compromiso ejemplares.

El 20 de enero de 2025 quedó marcado como un día histórico para el atletismo en Lasarte. Tras un cuarto de siglo entrenando en el módulo de Michelin, los deportistas y entrenadores de la localidad por fin disfrutan de una pista de atletismo en su propio municipio, un logro que llena de alegría y esperanza a toda la comunidad.

Este avance no solo representa una mejora en las instalaciones, sino también un símbolo del esfuerzo y la perseverancia de quienes han luchado por este sueño durante tantos años. Desde el inicio del año, las familias han sido un pilar fundamental, apoyando incondicionalmente a los y las atletas en un período en el que las condiciones de entrenamiento eran muy difíciles.

A pesar de que el atletismo es un deporte individual, en estos tiempos de incertidumbre, la sensación de pertenencia a una gran familia ha sido más fuerte que nunca. La comunidad

atlética de Lasarte-Oria ha demostrado que, con apoyo mutuo, los obstáculos pueden superarse y los sueños hacerse realidad.

Un dato que llena de orgullo a todos los involucrados es que actualmente ya son más del centenar los atletas que forman parte de la sección, desde los 8 años hasta deportistas veteranas. Este crecimiento refleja el interés y la pasión que despierta el atletismo en la localidad. Además, el compromiso con valores como la igualdad, la diversidad y la inclusión sigue siendo una prioridad, con un equipo de monitoras dedicadas que trabajan con entusiasmo, especialmente con los más pequeños.

Entrenando, formando y aprendiendo

El objetivo principal de la sección de atletismo en Lasarte-Oria es mucho más que la competición: busca formar a los atletas en valores fundamentales como la igualdad de género, el respeto, el esfuerzo y el compañerismo. La formación integral, la planificación flexible y adaptada a las

necesidades de cada grupo, y el carácter lúdico del deporte, son pilares que guían su trabajo diario.

La sección cuenta con tres líneas de trabajo según la edad y los objetivos de los atletas: escolares, federados y actividades lúdicas



no competitivas. La participación en campeonatos estatales y autonómicos ha sido constante, visibilizando el esfuerzo diario de los deportistas y entrenadores.

El grupo de mujeres korrikolaris ha crecido en número y en espíritu competitivo, con algunas ya participando en carreras populares, demostrando que el atletismo también es un espacio de inclusión y empoderamiento femenino.

Resultados destacados

En una primera fase y desde setiembre a marzo, los atletas escolares han competido en la zona de Donostialdea. Las pruebas eran de libre participación y la asistencia de nuestros deportistas a estas competiciones ha sido excelente, demostrando el compromiso de los mismos y de sus familias para la competición.

Así mismo, también hemos finalizado ya las tres jornadas correspondientes a los Ctos. Gipuzkoa individuales. Podemos destacar los siguientes resultados: Amelie Flores (2º triple, 2º peso y 3º 220 vallas), Danel Sánchez (2º longitud), David Román (2º peso, 2º triple y 3º pelota), Iker Ibeas (1º 220 vallas y 1º peso), Iban Carrascosa (2º 220 vallas) y Aitor Martín (2º disco, 3º peso).

En cuanto a los resultados de las federadas, de momento, ya que acabamos de iniciar la temporada en pista descubierta los más destacados han sido las siguientes: Eider Redondo e Iraia Alkorta en los Ctos. España: Eider Redondo (4º combinadas Sub 16), Iraia Alkorta (20º 60 mts Sub 20).

En los Ctos Euskadi a mencionar: Eider Redondo (1º combinadas, 1º triple, 1º 60 vallas, 2º peso), Naroa Furundarena (1º triple), Hodei Garcia (2º jabalina), Aiala Ramos (2º jabalina), Iraia Alkorta (2º 60 mts), Irati Gallego (3º 600 mts), Oinatz Almagro (1º Triple) y Aitor Eizaguirre (2º Peso).

En Ctos Gipuzkoa Absoluto: Eider Redondo (1º longitud, 2º altura), Oinatz Almagro (2º triple) y Oihana Igarriz (1º Peso).

De cara al verano, se preparan los Campeonatos de España, donde la atleta Eider Redondo ya está clasificada para competir en pruebas combinadas. Orgullosos de tod@s nuestr@s atletas.





Ilusiotik inklusiora

Kirola ere denontzat leloarekin jaio zen kirol egokitu eta inklusiboko proiektu hau, ia duela 10 urte. Ordutik hona, aldaketa ugari izan dira, bai eta bere izaera ireki eta dinamikoagatik izan duen bilakaera ere. Kirolari berriak hasi, beste batzuk arrazoi desberdinengatik utzi, aldatzen doaz entrenazaileak eta arduradunak, desagertzen dira kirol-jarduerak eta modalitateak, berriak sortu ere... Hala ere, bada beti bere horretan irauten duen konstantea: ILUSIOA. Letra larriz.

Gure kiolariek egunero transmititzen eta kutsatzen diguten ilusioa entrenamendu bakoitzean; lehiaketa bakoitzari aurre egiteko eta gozatzeko ilusioa; gure lana gogoz eta dedikazioz egiten jarraitzeko ilusioa; familiek beren seme-alabak zoriontsu ikusteko duten ilusioa, gehien gustatzen zaienarekin gozatzen duten bitartean: KIROLA.

Eta ilusio horri esker, parte-hartze oinarri sendoa izan dugu (20 kirolari baino gehiago)

jardueretan, baita zenbait kasutan nabarmen handitu ere, hala nola gurpil-aulkiko slalomean, non 2 kirolaritik 10era igaro baikara hiru urtean. Gainera, Lasarte - Oria herria kirol honen panorama autonomiko eta nazionalaren

epizentroan kokatu dugu, Gipuzkoako eta Euskadiko hainbat txapelketa antolatzu.

Baina ilusioaz ari bagara, ezin ditugu ahaztu boccia atala eta bertako kirolariak, gutxi baina errendimendu bikainarekin. Gure klubeko hiru kirolari Euskadiko txapeldun geratu dira 2024-2025 denboraldian, taldeen eta bikoteen modalitatean. Gainera, horietako bi, Xuban Santin eta Markel Uzquiano, Espainiako selekzio absolutuak eta gazteen selekzioak, hurrenez hurren, uztailean Europako txapelketak jokatzeko deitu dituzte. Zorte on biei!

Bestalde, nabarmendu nahi dugu desgaitasuna duten pertsonen inklusioarekiko dugun konpromisoa ez dela soilik gure kirolarietara mugatzen, ezta Lasarte - Oria herriira mugatzen ere. Ikasturte honetan zehar, gure inguruko hainbat erakunderekin (Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa, Bera Bera klubeko gurpil-aulkiko basket atala, Deustuko Unibertsitatea, EHU edo

Real Sociedad Fundazioa) ezarritako sinergie eta lankidetza-harremanei esker, gure hitzaldiak eta sensibilizazio-jardunaldiak, kirol egoitu eta inklusiboaren bidez, asko hazi dira, eta Gipuzkoako hainbat herritarra iritsi dira



(Donostia, Usurbil, Hernani, Tolosa, Lezo, Azpeitia...), eta lehen eta bigarren hezkuntza, eta unibertsitateko 1300 ikaslerengan iristea lortu dugu. Kirol egokitua ikasleengana hurbiltzeaz gain, jardunaldi hauen helburu nagusia errespetua, empatia eta elkartasuna bezalako balioak sustatzea da, pertsona ezinduek kirola egiteko eta jolas-



teko duten egoeran jarriz. Gainera, jolasgaraian egiten dituzten jolasak eta kirolak egokitzeko baliabideak eta tresnak ematen dizkiegu, desgaitasuna duten ikasleak ere jolas-denboran denek elkarrekin jolas daitezzen.

Azkenik, bidaia luze eta zail baina, aldi berean, atsegigarri ho-



netan, ezin ditugu ahaztu gure aliatu handienak: familiak. Ostadarreko familia handi honetako gurasoak, zuen inplikazio, lankidetza eta etengabeko eta eguneroko laguntzarik gabe, ezinezkoa litzateke gure lana aurrera ateratzea. ESKERRIK ASKO ematen diguzuen guztiagatik. ESKERRIK ASKO zuen bizitza-lezioengatik. ESKERRIK ASKO ezbeharren aurka

borrokatzen erakusteagatik eta beti aurrera egiten jarraitzeagatik, hain zuzen guztiekin kontra jotzen badute ere. Gertu behar zaituztegu eta eskerrak ematen dizkizuegu, zuek zaretelako bultzatzen gaituen motorra eta ILUSIOTIK INKLUSIORAKO bidaia zoragarri honetan jarraitzeko behar duen adibide eta bidai-lagunak.



Baloreak eta talde lana agerian boleibolean

Aurten gure atala emakumez osatuta egon da guztiz, sei taldetan banatuta. Denboraldi honetan, senior taldeetako batek Euskal Ligako bigarren mailan lehiatu da, laugarren urtea da maila horretan. Azken urteetan sendotu den taldeak, jokalari berrien lanari esker, maila ederra eskaini du ligan zehar, eta play-off fasean sartu eta liga irabazi dute, lehen mailara igotzeko aukera lortuz. Hau, boleiboleko atalean egindako lanaren emaitza eta lorpen handia izan da, urteetako ahaleginaren fruitu.

Beste senior taldeak, Gipuzkoako txapelketan parte hartu du, eta denboraldian zehar jokalariek euren arteko harremana eta jokua sendotu dituzte, taldearen batasuna indartuz.

Kadete mailako B taldeak, iaz infantil mailan ligan irabazi eta Euskadiko eskolarteko kirol jokoetan 2. postua lortu ondoren, maila berrira egokitut da. Orain, Gipuzkoako play-off fasean murgilduta daude, erronka berriak



gainditzeke prest.

Jubenil, infantila eta kadete A taldeek Gipuzkoako txapelketan parte hartu dute, eta, batzuek boleibola lehen aldiz probatu dute, beste batzuek, berriz, euren mugak gainditzeke eta hobetu ahal izateko aukera izan dute. Jokalariek, gainera, euren arteko errespetua eta laguntasuna areagotzeko espazioa izan dute, kirolaren baloreak sustatz.

Hainbat osagai garrantzitsu agerian geratu dira: adiskidetasuna eta motibazioa. Lehen momentutik, jokalariek sinetsi dute euren gaitasunean, baita taldeen oso tasunean ere. Horri esker, denboraldian zehar topatutako erronkei aurre egiteko tresnak lortu dituzte, eta, horrela, taldearen batasuna eta indarra sendotu dira.

Etorkizunari begira, ilusioz gaude eta prest gaude berriro ere bolada honetan sakontzeko edo hasteko interesa dutenentzat ateak zabalik daude! Boleibolaren munduak, beti bezala, aukera eta esperientzia berriak eskaintzen ditu, eta gure taldeek, horretan, aurrera egiteko grina eta ilusioa mantentzen dute.





Infantilak



Kadeteak



Kadetea



Jubenila



Gipuzkoa Ligako Seniorra



Euskal Ligako seniorra

Bastoiaik eskuan eta ibili munduan



Aurtengo ikasturteari ezin hobeago ekin genion ipar martxalariok, 10. urteurreneko festa polit batekin hasi ginan. Goizean, ibilaldi batekin hasi zen eguna, Etxezarretak gonbidatuta hamaketako egiteko aukera izan genuen. Ondoren, aurrezku hunigarri bat izan genuen Erketzen aldetik, eta Beltzak E.T-k prestatutako bazkari goxo batekin jarraitu genuen. Eguna ekitaldi ezberdinez beteta egon zen: Earra bertso eskolako bertsolariak, Bea eta Intzaren esketxak eta bukatzeko Denboraz Kanko eta Auskalo lasarteoitarren kontzertuak. Egun ederra benetan eta dena auzolanean.

Irlandatik barrena

Ohitura onak mantentzen jarraitu dugu eta aurten Pazko asteako irteerarako Irlanda aukeratu dugu. Dublinera 20 lagun joan gara, baihako ibilbide ezberdinak egiteko: Howth península, Raheny/Bull Island/Clontarf, Dun Laoghaire/Dalkey/Killeney eta Belfasteko Falls Road. Itzela izan da.

Bestetik, Ipar martxako kideok ohiko



jardueraz gain, hainbat ekimenetan parte hartzen jarraitu dugu: Lasarte-Oria Bai! Krosa, Aspanogiko piratek antolatutako martxa, Mugikortasun astea, Buruntzaldeako ibilbideen eguna, besteak beste.

Ipar martxa sustatzen jarraitzen dugu. Azken urtean bi hastapen ikastaro oso berezi eskaini ditugu: bata, ASPARGI elkartarekin (Gipuzkoko Parkinson asoziazioa) eta bestetik, ALCER (giltzurrun gutxiegitasun kronikoa dutenei laguntzeko elkartea) elkartarekin.

Denboraldiari Ostadarreko festarekin amaiera emango diogu. Baino irailean, berriz, bueltatuko gara gogoz eta ilusioz.



Aldaketa garaia



Aldaketaz beteriko 24/25 denboraldia bukatzean dago saskibaloi atalean, denboraldi polita eta zaila izan da aldi berean gurea.

Jakingo duzuenez, aurreko denboraldi bukaeran, orain arte gure koordinatzai-lea izan den Endika Marrahik atalaren zuzendaritza uzteko erabakia hartu zuen eta lehenengo lerro hauek, urte guzti hauetan egin duen lan guztiagatik eskerrak emateko aprobetxatu nahi ditugu. Bera izan da herrian saskibaloia hartz duen garrantziaren eragile nagusietako bat eta hau beti izango da bere etxea. Mila esker Endika!!!

Atalaren zuzendaritza guztiz aldatu dugu ondorioz, orain arte sailean hasieratik edo ia hasieratik geunden 7 entrenatzaileren artean hartz dugu ardura berri hau, beti ere klubaren laguntena ezin hobearekin. Beldur pixka batekin ekin genion ibilbideari, baina ilusio handiz eta nahiz eta gora

behera ezberdinak izan ditugun urtean zehar, orokorrean oso pozik gaude atalaren egoerarekin.

Aurtengoan, saskibaloi eskolaz gain, 11 talde izan ditugu gure koloreak defendatzen, 10 emakumezkoen talde eta ia atalaren hasieratik kamixeta urdin beltza Gipuzkoan barrena eraman duen gizonezkoen seniorra. Guztira 160 neska eta 15 mutil bildu ditugu saskibaloiaz gozatzeko.

Ikusi daitekeen bezala, atalak goraka jarraitzen du, baina urteroko arazo berdina izaten jarraitzen dugu, mutilak behar ditugu atalean. Batzuk, jolasteko baino, zapatalik gordetzeko beharra daukagu, baina ez dugu taldea bertan behera geratzea nahi, beraz, animatu zaitezte gurekin jolastera!!

Beti jokalariengan jartzen dugu gure ardatza, azkenean beraiengatik eta beraintzat egiten dugulako lana. Baina, lerro hauek askotan bigarren eremu batean gel-

ditzen diren entrenatzaileei eskerrak emateko ere erabili nahi ditut. Talde federatuekin lanean 15 pertsona eduki ditugu eta beste 13 eskolan laguntzen. Ez da bat ere erreza urtero egiten duten lana. Aurten, gainera, askok aurrera pausu bat eman dute atalak goruntz jarrai dezan eta beti ilusioz eta jokalarien hobe beharrez egin dute dena, beraz, MILA ESKER zuei ere ekipo! Zuekin atalak etorkizuna bermatuta dauka.

Kirol emaitzei dagokienez, oso urte ona eduki dugu! Urrezko kadeteak euskal ligan jolasteko aukera lortu zuen eta nahiz eta ez duten maila mantentzerik izan, oso txapelketa ona egin dute, talde guztiekin partiduak borrokatuaz. Gainera, talde honetako jokalaria den June Dominguez, Euskal Selekzioarekin teknifikazioak egiteko konbokatua izan da!

Partaidetza Juniorrak ere, zilar errendimendu kategoriara igoera lortu du eta bertan oso ondo lehiatu dira. Gainera, partaidetza kadetea, zilar kadetea eta zilar juniorrak, beraien mailako igoera faseak jo-

lasteko txartela lortu zuten eta nahiz eta azkenean ez zuten mailaz igotzea lortu, beraiek egindako lana ere goraipatu nahi dugu.

Azkenik, txikienerkin bukatuko dugu. Infantilek ere oso urte ona eduki dute txapelketei dagokienez. Gainera, lehenengo urteko infantilean jokatzen duten 4 izen nabarmendu nahi ditugu, Xune Azkono-bieta, Amane Esnaola, Naroa Perurena eta Naroa Baltasar herrialdeko selekzioan parte hartzeko deituak izan baitira. Honi, eskolan garatzen ari diren jokalariak batzen badizkiogu, arloak oso etorkizun polita eta zirragarria duela esateko moduan gaude.

Gu dagoeneko lanean ari gara hurrengo urteari begira, beti ere nabarmentzen gaituen ilusioa mantenduaz eta gure jokalariak ahalik eta hobekien garatu daitzen asmoarekin. Hurrengo urtean ikusiko dugu berriro elkar!!

AUPA OSTADAR!!!!





Infantil Txiki Urdina



Infantil Txiki Beltza



Infantil Haundi Beltza



Infantil Haundi Urdina





Kadete Zilarra eta Kadete partaiidetza



Kadeteak Euskal Liga



Juniorrak



Juniorrak



Seniorrak



El cicloturismo necesita aire fresco

Un año más los componentes de la sección de cicloturismo de Ostadar SKT en marzo iniciaron una nueva temporada con la misma ilusión enfocada en la práctica deportiva basado en el compañerismo y amistad. En esta edición -pese al intento frustrado de ampliación de equipo-, serán alrededor de una decena de veteranos deportistas -la sección necesita la incorporación de más integrantes, gente más joven y la novedad de féminas, para asegurar su futuro-, los que tomen parte durante los meses de marzo hasta octubre inclusive, con el descanso de agosto, de 31 salidas o excursiones con diferentes kilometrajes y desniveles que les llevarán por diferentes localidades del territorio guipuzcoano y navarro.

También celebrarán tres salidas especiales a zonas de: Artanza (Navarra) en mayo, Nacedero del Nervión (Bizkaia) a mediados de junio, y Calahorra (La Rioja) el primer fin de semana de julio. Como siempre les acompañarán sus parejas, y serán unas citas muy amenas y divertidas.

Como todos los años, para la entrega de calendarios y mantener la camaradería celebraron en febrero una cita gastronómica acudiendo



a una sidrería y clausurarán la misma, allá por noviembre, con una comida.



Calendario

La cita para las diferentes salidas sigue siendo la puerta de la sede del Hogar del Jubilado en kale Nagusia y el horario varía según los meses. Esta temporada recorrerán más de 2.000 kms. Para todos los que estén interesados en integrarse en esta sección de cicloturismo pueden dirigirse a la oficina

de Ostadar para pedir más información.

OSTADAR S.K.T. Zikloturismoa irteeren egutegia 2025						
DATA	IRTEERA	KMS	DATA	IRTEERA	KMS	
02-mar	ITSASONDO	64	06-jul	GAINTZA	80	
03-mar	ZUMAIÀ	60	13-jul	LASTUR	99	
16-mar	BELAUNTA	50	20-jul	BETELU	76	
23-mar	AMEZKETA	60	27-jul	REDAJO	68	
30-mar	IRAKETA	66	03-agosto	ELIKANO	54	
06-abr	ZALDIBIA	75	14-agosto	S.PRUDENTZIO GETARIA	52	
13-abr	ITZIARKO GAINA	80	21-agosto	ALDABA	89	
20-abr	GUADALUPE	88	28-agosto	AKAMA	88	
27-abr	ALTZAGARATE	72	06-oct	ZESTOA	79	
04-may	DEBA	90	12-oct	OLABERRIA(IRUN)	84	
11-may	MANDUBIA	96	19-oct	OIRIA	62	
18-may	ERREZILGO ITZULIA	88	26-oct	ZASKUN	45	
25-may	ZIBURU	85				
01-jun	COQUETA - LEITZA	95				
08-jun	LIZARRUSTI	100				
15-jun	MUTRIKU	100				
22-jun	GABIRIA	98				
29-jun	ARTADI	62				
				GUZTIARA	2196	
				Irteerako orduak		
				Martxoa	9:00	
				Apiria - Irola - Urria	8:30	
				Gainerako hilabetek	8:00	



Fusión, campo y expectativas: ilusión

La temporada 2024/2025 comenzaba con grandes expectativas; un nuevo campo, un nuevo equipo de neskak y queers; una fusión con el Berabera rugby taldea y el Zarautz rugby, creando entre los 3 equipos el Gipúzkoa Sortzen; se nos presentaba una temporada abierta de ilusiones, de ambiciones.

Y Septiembre ilusionó con los entrenamientos de los equipos senior masculinos; vimos como de repente, los hasta ese día, rivales en el campo fusionan en 3 equipazos compitiendo en la segunda división nacional, DHB, además de competir en primera y segunda división de ligas vascas.

Aunque a la vez, la desilusión se apoderaba de todos nosotros, viendo el nuevo campo de Atsobakar terminado, y sin poder utilizarlo. Una semana tras otra, jugadores desplazándose a distintos campos para entrenar; nuestras neskak, teniendo que ir al frontón de Zubieta para poder empezar a adquirir los



conceptos básicos de nuestro deporte; sin poder placar, ya que el suelo no lo facilitaba... en fin.. situación controvertida. Pero un día llegó el campo, y los Beltzak jugaban en casa; y la ilusión nos la trajeron los pequeños rugbiers de la eskola que solamente con acceder al campo, se les veía la alegría en sus ojos; ahora Beltzak disponía de una instalación en condiciones para nuestro deporte.

Y disfrutamos del gran juego de los Sub 16 y Sub 18; impresionante. Estos últimos lograron clasificarse para el campeonato de España en Valencia; una enorme ilusión. Y allí fueron, a dar la



cara jugando contra equipos de primer nivel como el Pozuelo Rugby, Les Abelles y hasta el mismísimo Barcelona que no pudo doblegar a nuestros jugadores en un impresionante partido. Espectacular. Además, varios de ellos han sido jugadores habituales en las convocatorias de la selección de Euskadi compitiendo en el CESA(campeonato estatal de selecciones autonómicas) llevando con orgullo la bandera de los Beltzak. Y también, competirán en las semifinales de la Euskal Liga intentando lograr el campeonato.

Los Sub 16, ante una liga muy potente, dieron la cara partido tras partido; sin bajar la cabeza en ningún momento logrando terminar al final en un 6º lugar de la clasificación general disputada entre 10 equipos. Trabajo, constancia, respeto, son valores logrados a base de esfuerzo y trabajo. Una gran actitud en todo momento dando pie a que algunos jugadores fuesen llamados a entrenar y competir con la selección

de Euskadi de su categoría.

Los Sub 14, sub 12 y sub 10 son las más importantes de nuestro club, ya que ellos marcan el futuro y las nuevas ilusiones de nuestro club pasan por ellos. Bajo el mando y dirección de Josemari Núñez, de Eukan Alkorta, de Oier Arroyo y la colabora-

ción de los Sub 18 , Efrén, Joanes, Eneko y Lander, han trabajado de principio a fin, han "hecho equipo" con sus compañeros de Zarautz rugby taldea; forman una piña que genera competición, amistad y rugby proporcionando a los padres y madres ilusión y expectativas. Con la llegada de la primavera, comienzan las mejores actividades para ellos; desde formar parte del pasillo de recepción a los jugadores del Aviron Baionais y del Section Paloisson del Top 14 francés; el próximo torneo de la Concha, que siempre es una fiesta y el más interesante de todos: el memorial Izar Beltzak donde se enfrentan con todas sus ganas a sus aitatzos y amatxos,





cara a cara en el campo, donde quien marca el ritmo de juego es el entrenador.

Nuestra mayor ilusión para esta temporada, ha sido la del único equipo que no ha competido; nuestro grupo de neskak y queers que nos han generado muchísima ilusión ver por fin en Lasarte-Oria como se va fraguando un equipo que con muchísimas ganas y actitud está aprendiendo a jugar. Teniendo desde 16 años en adelante, las neskak que están integrando el grupo, están formando un equipo en el que los conceptos del rugby, los intentos de placar, las risas al hacer las Touch, las carreras con el oval, y el comienzo de trabajo de las melés, van siendo lo habitual en Atsobakar.

El día 31 de Mayo, en el torneo Izar Beltzak, compartirán entrenamiento dirigido con el Txingudi rugby Taldea, siendo esta su primera experiencia con un equipo rival.

Los Senior de primera división de Liga Vasca, se han clasificado para jugar los play-offs por la final de la Euskal liga, al terminar 4 en la clasificación general. Gran trabajo, y

el 4 y el 17 de mayo se enfrentan al Elorrio, equipo que solo ha sido derrotado una vez en toda la temporada, y fue el Gipuzkoa Sortzen quien lo logró. Si vencen la final de las ligas se juega en Gazteiz.

El equipo de DHB Gipuzkoa Sortzen, dirigido por Fran Puertas, fue de menos a más y termina la temporada fortaleciendo los objetivos por los que se formó esta fusión.

El equipo de segunda División de Euskal liga, disputando todos sus partidos como local en Lasarte, ha demostrado que un equipo, no lo es solo en el campo; se unen para ir a ver partidos de sus compañeros, dando gran ambiente a cada competición, además de jugar, el equipo está para apoyar . Chapeau.

Sinceramente, nos alegra mucho lo logrado este año, y el Torneo Izar Beltzak será el colofón a la temporada. Aunque a nuestro pesar, una nueva Izar Beltzak brilla en el firmamento, "Pikolo", por eso, este año en el Torneo estaremos los de siempre, rindiendo el homenaje a nuestras Izar Beltzak y contaremos con la participación de Alboka Abesbatza en el Trinkete de Lasarte-Oria.

Ilusión, expectativas, campo, fusión, cumplidos ¿qué más le puedes pedir a una temporada?



Eskalatzena ohituak gara, ez dugu etsiko



Eskalatzena ohituak gaude. Urte asko dira pareta igotzen ditugula, zailtasun teknikoak gaindituz, baina badago horma bat kostata ari garela igotzen, Udaletxe-ko.

2002.urtean rokodromo indoor duhin bat eskatzen hasi ginan, 2019an lortu genuen. Baina, Michelinego rokodromo bat dugun arren, entrenatzeko baldintzak ez dira egokie-nak. ZERGATIK??

Iaz, Udalak jakinarazi zigun eraikitzentz ari diren kirolegian ez zegoela rokodromoa jartzeko instalazio-rik proiektatuta, baina Michelingo rokodromoa handitzea ziurtatuta geneukala esan ziguten. Zein ino-zoak!

Rokodromoa handitzeko aurrekontua 2024ean onartuta zegoen arren, gaur gaurkoz, egoerak berdin jarraitzen du. Horregatik, hainbat bilera egin ditugu udal ar-



duradunekin egungo egoera argitzeko. Bilera horien ondoren jakinarazi ziguten polikiroldegi berrian rokodromo bat eraikitza bir-planteatzen ari diera.

Instalazio duinak behar ditugu modalitate hau behar den moduan praktikatu ahal izateko, gure inguruko edozein herrian bezala. Uste dugu, 2002tik, rokodromo bat eskatzen hasi ginene-tik, nahikoa dela.



Merezitako errekonozimendua

Iaz, garai honetan, Juan Mari Iraolaren ibilbi-de profesionala aitortzeko omenalditxoa abian zen. Juan Marik, estatuko alpinistarik onenetakoa, historia ikaragarriarekin, bere anonimo-tasunaz jeloskor, are handiago egiten duena, klubaren egunean jaso zuen errekonozimendu hori. Hiru arrazoi omenaldia berresteko. Bata, hiru hamarkada daramatza Patagoniara joaten. Munduko alpinistarik onenen agertokia,



non Cerro Torre helburu nagusia duten, munduko alpinismoak gehien desiratzent duen mendia, Juan Marik duela bi urte igo zuena. Bi, Eternal Flame, ize-nik gabeko Wolfgang Güllich de la Torrerren bide mitikoa, Trangoko Dorreen mendigunean, Karakorumean. Eta hiru, Gavarnieko hiru hormen igoera... Ia ezer ez!

Gu gure martxan jarraitzen dugu. Santa Barbaran "Elgeta 1924" bia berria prestatu dugu, gure federa-zioaren mendeurrenari egindako omenaldi txikia.

Urtero Salsas-ek prestatutako martxa egin dugu, Aralar izan da eszenatokia: Madozetik abiatu, Atako haranetik barrena, San Migueleraino eta Agiritik, jenderik gabeko herrixkatik, itzuli. Josean, urteak ez dira debalde pasatzen, ezta?

Azken urte honetan, Txusma Perez Azazetaren "The mountain family" azken liburuaren berri eman dugu ere. Duela urte batzuk zendutako Antxon Burciori egindako omenaldia da eta liburuarekin lortutako dirua SOS Himalayari emango zaio, Nepalgo Makalu haranean ospitale bat eraikitzeko, Iñaki Ochoa de Olzaren ametsa.

Eta beste behin ere urteari agur esan genion San Roken, Buruntzan, salda, txistorra eta trikitixarekin.

Bidezidorretan topatuko gara!



FUTBOL ESKOLA OS-TA-DAAAAR!!!!

2013/2014/2015/2016





Laino beltzak uxatu

O hartzerako, iritsi da denboraldi amaiera. Beste urte batez, gure jokalariek Ostadarren koloreak eraman dituzte. Gipuzkoako futbol zelaietan; kirol honi dioten pasioaren gorria; alaitasunaren laranja; zoriontasunaren horia; zintzotasunaren ziana; esperantzaren berdea; kamisetaren urdina; edota, anitzasunaren morea. Tamalez, laino

beltzak ere izan ditugu Ostadarra estaliz, futbol zelaietan soberan dauden eta lotsagorritu gaituzten jarrerekkin. Gozotik gazitik baino gehiago izan dugu, noski. Baino, datorrena hobia izatea nahi badugu, ongi egindakoari eutsi, eta hanka-sartzeek ikasteko balio dezatela. Uda ona izan, udaz gozatu eta dato-ren denboraldira arte.



Erregionaleko Ohorezko Dibisioa



Kadeteak



Alebina



Lehenengo Infantila



Infantil Txikia



Infantil Haundi



Gure bazkideen babesea ezinbestekoa da Ostadar SKT-ko kirol egitasmoa gauzatu ahal izateko. Horregatik, gurekin zaudetenoi eskerrak bihotzez zuen lagunza ematen jarraitzeagatik. Eta oraindik bazkide ez zaretenoi, kirol proiektu honen parte izatera gonbidatzen zaituztegu. Bulegoan informazioa jaso dezakezue. Urtero gabonetan otar bat zozketatzen dugu bazkide guztien artean. Aurtent, Iñaki Iturriari egokitu zaio. Zorionak!



BOLOS Y TOCA

Los bolaris de la sección recorren los diferentes pueblos de la provincia llevando nuestro nombre en las diferentes tiradas, ilusión no falta. En mayo pudimos disfrutar de la tirada del Campeonato de bolos y toca de Gipuzkoa, en el bolatoki de Michelín. En el ámbito local siguen organizando las tiradas de las fiestas de San Pedro, a la que os animamos a participar tanto en bolos como en toca. Hacemos un llamamiento a quien lo dese a que se acerque al bolatoki y pruebe.



Aurten lauak baietz! Itzulia, Giroa, Tourra eta Vueltako porrak antolatu ditugu beste behin. Hogeita hamar urte baino gehiago dituen porra honek kalean jarraitzen du zuetako askori esker.

Dagoeneko Euskal Itzulia eta Giroko porra egin ditugu. Hurrengoa, Tourrekoa izango da, uztailaren 5ean. Tourreko boletoak larunbat horretan, 21:00etan jasoko ditugu tabernetatik, on-lineko boletoak berriz, igande eguerdira arte egin ahal izango dira, 13:00ak arte. Ez utzi azken momenturako eta ez ahaztu boletoa betetzeaz, bestela "onenaren sarian" ezin izango duzue parte hartu eta ez da txantxa, 1.800€!

Vueltako porra abuztuaren 23an hasiko da. Honen berri ere emango dugu.

Porrari buruzko informazio guztia www.ostadarskt.eus-en aurkituko duzue, eta bertan boletoa on-line bete dezakezue ere.



OSTADARreko PORRA
Uztailaren 5ean - 5 de julio
ON-LINE www.ostadarskt.eus eta tabernetan

Para el mejor de las 4 1.800€

larunbatean jasoko dugu
21:00
recogida el sábado

1.goa 600€
2.goa 300€
etapako 75€

se sortean 6 jamones



ETORRI GURERA!!!

Anímate a hacer deporte
con nosotr@s!



25/26 DENBORALDIRAKO IZENA EMATEKO EPEA:
ekainaren 1etik 20ra



INSCRIPCIONES 25/26:
del 1 al 20 de junio

www.ostadarskt.eus

ostadarskt

ostadarskt



OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK
eskerrak eman nahi dizkie, TXINTXARRI aldizkariari,
Isaak Farréri, gure babesle eta baziide guztiei ere,
denboraldi honetan eskainitako laguntzarengatik.

